

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

2507

AGINDUA, 2020ko ekainaren 8koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Arrasate udalerriko Zerrajeran 40 babes ofizialeko etxebizitza azalera eskubidean esleitzeko prozedurari.

GERTAKARIAK

1.– Etxebizitza-eskatzaileen Erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen du. Eginkizun hori, Babes publikoko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriari buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen da.

2.– Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkararen 2018ko azaroaren 30eko Ebazpenaren bidez, babes ofizialeko behin-behineko kalifikazioa eskuratu du Arrasate udalerriko Zerrajerako 63 babes ofizialeko etxebizitzako sustapenak. Sustapen hau Euskadiko Etxebizitza eta Lurra SA (VISESA) baltzu publikoak sustatzen du, eta EB3-0756/18-LC-000 du espediente-zenbakia.

3.– 2007ko abenduaren 21ean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak eta Arrasateko Udaleko alkate-udalburuak sustapen honetan eragina duen hitzarmen bat sinatzen dute. Hitzarmen horren bosgarren klausulan Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du Arrasate interesdun udalerririk bakarria izendatzeko. Hortaz, udalerririk horretan erroldatutako pertsonak bakarrik parte hartu ahal izango dute esleipen prozeduran. Esleipen-prozeduran etxebizitzarik soberan geratzen bada, eskualde egitura bereko beste udalerririk batzuen babestutako etxebizitzaren eskaera betetzeko erabiliko dira.

4.– 2019ko ekainaren 4ko, Aginduaren bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, Arrasate udalerriko Zerrajeran 63 babes ofizialeko etxebizitza azalera eskubidean esleitzeko hautaketa-prozesua hasten da. Agindu horretan etxebizitzaren esleipen prozeduran parte hartzeko titularretako batek Arrasateko udalean erroldatuta egotea egiaztatzea eskatzen zen hasiera agindua argitaratu zen datan, hots, ekainaren 21ean. Esleipen-prozedura amaituta 23 pertsona izan dira etxebizitza baten esleipendun, eta 40 etxebizitza esleitu gabe geratu ziren. Hitzarmenak esaten duenari jarraituta, Agindu honen bidez esleitu gabeko 40 etxebizitzak esleitzeko prozedura zabalduko da eta etxebizitzak Debagoienako eremu funtzionaleko (Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, eta Oñati) etxebizitza eskatzaileei eskainiko zaizkie.

5.– 40 etxebizitza horietako 3, bi logelakoak, 89,98 m²-ko azalera dutenak, mugikortasun urri iraunkorra duten elbarriei egokituta daude. Gainontzeko 37 etxebizitzetatik 21 bi logelakoak dira, eta 58,41 m² eta 59,68 m² bitarteko azalera dituzte, eta 16 hiru logelakoak dira, eta 76,82 m² eta 89,03 m² bitarteko azalera dituzte. Etxebizitzak lagatzeko araubidea azalera-eskubidea izango da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari dagokio agindu hau ematea, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren

29. artikuluan xedatutakoaren arabera –Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzko Agindua, hain zuzen ere–.

2.– Babes publikoko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko 2008ko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 18. artikuluan jasotzen denaren arabera, lehen eskualdatzeko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu behar direnean, bizikidetzaren unitatea osatzen duen titularretako bat gutxienez Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egongo da, kasuan kasuko araudiak ezarritako gutxienezko antzintasunarekin. Honi lotuta, 2012ko urriaren 15ekoa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren Aginduak dio 25. artikuluan 3. atalean Euskal Autonomia Erkidegoan errolda antzintasuna erosketa-araubideko babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan gutxienez urtebetekoa izan behar dela.

3.– Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskatuko diren urteko diru-sarrera haztatuen mugak, 210/2019 abenduaren 26ko Dekretuaren, Kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa, azken xedapenetako seigarrenak dioenari jarraituko dio.

4.– 39/2008 Dekretuaren 22. artikuluan jasotzen denaren arabera, diru-sarrerari dagokienez kontuan hartu beharreko epealdia honakoa izango da: zergaren aitortzea egiteko epea amaitu ondoren, esleipen-prozedurari hasiera emateko aginduaren argitalpen-dataren aurreko azken zergaldia.

5.– Arestian aipaturiko 2012ko urriaren 15eko Aginduak ezartzen du, pertsonak edo bizikidetzaren unitateek babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen prozeduretan parte hartzeko, Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokiaren Eskatzaileen Erregistroan inskribatuta egon beharko dutela. Baldintza hau betetzen dela ulertzen da agindu hau argitaratzen den datan Etxebizitzaren erosketa eskatzaile moduan alta emanda badaude. Baldintza hori betez gero, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan inskribatzeko eskaeran adierazitako udalerrietan zein horien eremu funtzionaltan egindako esleitze-prozeduretan parte hartu ahal izango dute, hori eragozten duen arau edo hitzarmen-xedapenik ez.

6.– Agindu horretan honakoa ere esaten da: prozeduran sartzea borondatezkoa izango dela, eta hasiera Aginduan zehaztutako epean eta bitartekoaren bidez egin beharko dela.

7.– Esleitzeko modua egoera ezberdinen arabera izango da: prozeduran sartutako eskatzaile kopurua sustapeneko etxebizitza kopurua baino handiagoa bada, esleipena notarioaren aurreko zozketa publiko bidez egingo da, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 31. eta 41. bitarteko artikuluetan jasotzen den prozeduraren arabera. Aldiz, etxebizitza kopurua eskatzaileena baino handiagoa bada, Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak notarioaren aurrean ordenatuko ditu etxebizitza-eskaerak, eta etxebizitzak 42. eta 44. bitarteko artikuluetan jasotzen den prozeduraren arabera esleitzeko dira.

8.– Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 62.2 artikuluan gainokupazioari buruz jasotakoa kontuan hartuta, prozedura honetan bost kide baino gehiagoko bizikidetzaren unitateek ezingo dute parte hartu.

Aipatutako lege-xedapenak eta oro har gai honetan erabilgarri diren gainerakoak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hasiera ematea Arrasate udalerriko babes ofizialeko 40 etxebizitza esleitzeko esleipenari (Arrasate Arrasate-Bergara eremu funtzionalean dago). EB3-0756/18-LC-001 espediente-zenbakia du.

Bigarrena.– Sustapen honetako etxebizitzak lagatzeko araubidea azalera-eskubidea izango da.

Hirugarrena.– Esleipen prozeduran honako pertsonak edo bizikidetzak unitateek parte hartu ahal izango dute: agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den datan Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan altan egon eta erosketa eskatzen dutenek, betiere, bertan jasotako baldintzak betetzen badituzte.

Laugarrena.– Izena emateko eskaeran aukeratutako udalerrietako bat Arrasate izango da edo Debagoienako Eremu Funtzionaleko udalerrietako bat (Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, eta Oñati).

Bosgarrena.– Etxebizitzaren titular izango diren pertsonetako batek Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean urte beteko antzintasunez erroldatuta egon dela egiaztatu beharko du, agindu hau argitaratzen den datan.

Seigarrena.– 2018. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak 12.000 euro baino txikiagoak ez direla eta 39.000 euro baino handiagoak ez direla egiaztatzea eskatzen da. Mugikortasun murriztua duten elbarriek edo desgaitasun psikikoa duten pertsonak nahikoa dute 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek ez dute gutxieneko diru-sarrerarik egiaztatu beharko.

Zazpigarrena.– 5 kide edo gehiagoko bizikidetzak unitateek ezingo dute honako esleipen prozeduran parte hartu.

Zortzigarrena.– Aipatutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak edo bizikidetzak unitateek sustapen honetako esleipen prozeduran parte hartu nahiko balute, 2020ko uztailaren 1a eta 27a bitartean (biak barne) dagokion inprimakia aurkeztu beharko dute hauetako bide baten bidez:

– Telefonoz: Etxebideko webgunean <http://www.etxebide.euskadi.eus> argitaratuko den telefono zenbakira deituta eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoaren iragarki-ohol elektronikoa (www.euskadi.eus > egoitza elektronikoa > iragarki taula) argitaratuko den telefono zenbakira deituta.

– Postaz: Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzan, Andia kalea 13, 5. solairua, 20004 Donostia.

– Telematikoki: <http://www.etxebide.euskadi.eus>

Bederatzigarrena.– Sustapeneko etxebizitzetatik 3 etxebizitza, 89,98 m² azalera dutenak, mugikortasun mugatu iraunkorra duten pertsonak egokituta daude, etxebizitzak bi logelakoak dira. Etxebizitza horiek mugikortasun mugatu iraunkorra duen pertsona bat dagoen bizikidetzak unitateen artean esleituko dira.

Etxebizitza horiek honako ordena honetan esleituko dira: lehenik eta behin, egokitutako etxebizitzak gorpil-aulkian dauden pertsonak esleituko zaizkie, gero bi makulu nahitaez behar dituzten pertsonak eta, azkenik, 1971/1999 Errege Dekretuaren 3. eranskinaren D) eta H) bitarteko paragrafoekin lotuta 7 puntu edo gehiago dituztenei.

Hamargarrena.– Egokitu gabeko 37 etxebizitzetatik 21 bi logelakoak dira, eta 58,41 m² eta 59,68 m² bitarteko azalerak dituzte, eta 16 hiru logelakoak dira, eta 76,82 m² eta 89,03 m² bitarteko azalerak dituzte. Etxebizitza horiek, Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 62.2 artikuluan gainokupazioari buruz jasotakoa kontuan hartuta esleituko dira, horregatik bost kidera arteko bizikidetzak unitateek bakarrik har dezakete parte esleipen prozedura honetan.

Hamaikagarrena.– Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroari agindu hau argitaratu ondoren jakinarazitako bizikidetzak unitateen aldaketak ez dira kontuan hartuko, aldaketak egun hori baino lehen eman badira ere, indarrean dagoen araudiak ezartzen duen honako aldaketa hau salbu: ezkontza bidez elkartuta edo Elkarketa Zibilen Erregistroan inskribatuta dauden pertsonen babes ofizialeko etxebizitza eskuratzekotan elkarrekin izan beharko duela.

Hamabigarrena.– Eskatzaileen kopurua sustapeneko etxebizitzaren kopurua baino handiagoa denean, esleipena notarioaren aurreko zozketa bidez egingo da, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 31. eta 41. bitarteko artikuluetan jasotzen den prozeduraren arabera. Zozketaren ondoren itxaronzerrenda bat sortuko da, zerrenda horretan esleipendun suertatu ez diren eskatzaileak bilduko ditu eta haren bidez zozketan esleipendun gertatu diren etxeen uko egiteak esleitzeko zein Arrasate udalerriko Zerrajeran, 63 Babes ofizialeko etxebizitza azalera eskubidean esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duen Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 4ko Aginduaren bidez esleitutako etxebizitzaren uko egiteak esleitzeko baliatuko da.

Etxebizitza kopurua eskatzaileena baino handiagoa bada, Gipuzkoako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak notarioaren aurrean ordenatuko ditu etxebizitza-eskaerak, eta etxebizitzak agindu horren 42. eta 44. bitarteko artikuluetan jasotzen den prozeduraren arabera esleituko dira.

Hamahirugarrena.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxaron-zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa-
ren iragarki-ohol elektronikoa ere (www.euskadi.eus > egoitza elektronikoa > iragarki taula).

Hamalagarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke, hilabeteko epean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuari; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa hasieratik, zuzenean, bi hileko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 8a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.